



EUSKARA ZERBITZUA

Arangurengo Ibarra

8 Zk. 2011ko martxo-uztaila

Informazio Buletina

Arangurengo Ibarreko XI. Euskararen astea

Maiatzaren lehenengo astean euskararen astea ospatuko da ibarrean eta aurten gainera, XI. edizioa izanen da.

Noiz hasi zineten euskararen Astea antolatu eta egiten?

Duela 11 urte, AEKko ikasle talde bati bururatu zitzaigun euskararen eguna ospatzea. Garai hartan bazegoen geure ibarrean talde bat euskara ikasten ari zena; talde geldiezina, berezia eta gogo izugarriarekin euskara eta euskal kultura ezagutzeko eta handik sortu zen ideia. Jai xume bat prestatzea euskaldunak bildu izateko. Lan askorekin hasi zen jaia ospatzen herriz herri eta horrela, herriz herri hasi zen gure ibarrean geure hizkuntza zabaltzen.

Zorionez, urteak aurrera joan ahala, eguna aste bilakatu zen eta hizkuntzaz gain, gure kultura, hizkuntza oro har garatu nahi genituenez, beste ekitaldi batzuk antolatu genituen astean zehar; hala nola, antzerkia, pailazoak haurrentzat, musika emanaldiak etab.

Aurten Arangurenen izanen da, baina beti horrela izaten al da?

Lehenengo Arangurengo Ibarreko euskararen eguna Mutiloan izan zen esan dugun bezala duela hamaika urte, 2001ean. Euskararen eguna eta asteburuko jarduerak urtez urte herri batetik bestera mugitzen ditugu. Bederatzi herri ditu gure bailarak eta jada, bigarren bueltan gaude, hau da bailarako ia herri gehienetan izan da euskararen eguna eta aurten Arangurenen izanen da 2003an egin genuen moduan. Esan beharra dugu Udalak ere laguntza ematen digula ekitaldiak antolatzeke esate baterako.

Zergatik eta zertarako antolatzen duzue euskararen astea?

Azken bi hamarkada hauetan jende asko etorri da geure bailarara bizitzera. 7.000 biztanle bizi gara Arangurenen eta geurera bizitzera etorri diren gehienak gazteak dira. Hori seinale ona, arlo guztietan, eta euskararen egunak aukera ematen digu bailarako pertsona elkartu eta ezagutzeko. Euskararen astearen helburuak, euskara plazaratzea, sustatzea eta bultzatzea dira gure ibarrean. Horretaz gain nahi duguna da gure ibarreko biztanleen artean harremanak sustatu herri guztietako euskaldun eta euskaltzaleek elkar ezagutzea eta horretarako, igandeko jaia, bereziki, herrikoia eta herritarrentzat da. Oso aproposa egun eder bat pasatzeko euskaraz biziz.

11 urtetan gauzak aldatu al dira?

Gauzak aldatu dira bai. Hasieran egun bakarrean egiten genuen programazio osoa, gaur egun ordea, aste oso batean ekitaldi ezberdinak antolatzea lortu dugu. Gainera, ikasle talde batek hasitako proiektua orain, Irulegi Euskara taldeak burutzen du eta baliabide gehiagorekin antolatzen dugu. Pozik esan dezakegu gero eta jende gehiagok parte hartzen duela, batez ere igandean ospatzen den euskararen egunean.

Irulegi Taldeak antolatzen du beraz, euskararen astea, baina besterik egiten al duzue?

Euskararen asteaz gain, Irulegi Taldeak beste gauza batzuk ere antolatzen ditu; Olentzero, Santa Ageda, Korrika Txikia, Bertso bazkaria... Irulegi Euskara Taldeko kideok, dei egin nahi dizuegu, ideien bat baldin badaukazue edo gurekin parte hartu eta bazkide izan nahi baduzue urbil zaitzetzela Irulegi Euskara Taldera.

Zerbait gehiago gehitu nahi?

Bai, amaitzeko zera, aAnima zaitzetzeta eta parte hartu Arangurengo Euskararen Astean.



Aranguren

HAURRAK

D EREDUKO HAUR ETA GAZTEENTZAKO UDALEKUAK

AURRE INSKRIPZIOA: martxoaren 28, 29 eta 30ean. Euskara zerbitzuan
Zozketa: apirilaren 1ean.
Iraupena 7 egun
Data: uztaila eta abuztuko lehenengo hama-bostaldia.

PIRATEN UDALEKUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 1.-3.
Lekua: Pasai Donibane
Prezioa: 162 euro



XAMARIKO UDALEKUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 4.-5.
Lekua: Larraul
Prezioa: 162 euro

BERTSO UDALEKUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 4.-5.
Lekua: Orio
Prezioa: 186 euro



UDALEKU SORGINDUA

Adina: Lehen Hezkuntzako 6. eta DBHko 1.-2.
Lekua: Zugarramurdi
Prezioa: 168 euro

JANTOKI ETA GARRAIORAKO BERAK

2005A BAINO LEHEN JAIOTAKO D EREDUKO

HAUR ETA GAZTEENTZAKO JANTOKI ETA GARRAIORAKO BEKAK

Dokumentazioa aurkezteko epea ikasturteko azken egunetik aurrera irekiko da eta uztailaren bukaera aldera arte iraungo du. Aurkeztu beharreko dokumentazioaren artean ikasleak jantokia erabili duen egunak zehaztuko dituen ziurtagiria egongo da. Eskatzaileak dokumentu hau eskolan eskatu beharko du jantoki zerbitzua bukatu aurretik. Informazio gehiagorako: udaleko webgunea, UIG, udaleko iragarki taulak eta Euskara Zerbitzua.

GAZTE ETA HELDU

HELDUENTZAKO EUSKARA IKASTEKO BEKAK

Dokumentazioa aurkezteko epea ekainetik aurrera irekiko da eta urrira arte iraungo du. Informazio gehiagorako: udaleko webgunea, UIG, udaleko iragarki taulak eta Euskara Zerbitzua.

GUZTIAK

KORRIKA

KORRIKA TXIKI TAXOAREN

Ibarreko Korrika txikia, eta ondoren, txistorrada.

Apirilak 3, goizeko 11:00etan, Taxoaren. Nahi duenak bizikletaz joan ahalko du. Horretarako, goizeko 10:30ean kiroldegiko sarreran geratu gara.

Helburua: Ibarretik pasako den Korrikako kilometroetatik bat erosteko finantziazioa lortu eta euskara sustatzeko aitzakiarekin Ibarrean egun polit bat pasatzea. Parte hartzaileak Ibarreko taldeak izango dira (ikastetxe ezberdinetako guraso, ikasle eta irakasleak, kuadrilak, elkarteak, eskaltegiko taldeak...).

Parte hartzeko, martxoaren 30erako Euskara Zerbitzura deitu behar da, kilometro bat erreserbatu (100 metrokoak izango dira) eta egingo den ekarpena zenbatekoa izango den zehaztu. Talde bakoitzak nahi eta ahal duen ekarpena egingo du, ez dago ez gutxieneko eta ez gehiengo kopururik.



KORRIKA

Apirilak 8, gaueko 21:50etan, Mutiloatik pasako da.

Korrika pasa ondoren afaltzera joango gara Kiroldegiko tabernan: 10 €-tan, (horietako 2 € Ibarreko kilometroetako bat finantza-tzeko erabiliko dira).

Erreserbatzeko apirilaren 7a baino lehen, Euskara Zerbitzura deitu behar da.

KORRIKA KULTURALA

ANTZERKIA EUSKARAZ

Taldea: Gilkitxaro Antzerki taldea

Lana: "8 BEGI"

Eguna: **apirilak 2**, larunbata, Kultur Etxeko Auditorioan.

Ordua: 20:30ean

Lekua: Arangurengo Kultur Etxeko Auditorioan

Sarrera: doan

Kafe Antzerki giroan:

Publikoarekin harreman zuzena eta etengabea delarik, zenbait eszena eta sketx eskainiko dituzte umorearen bidetik beti ere.



TXAN MAGOAREN IKUSKIZUNA EUSKARAZ

A eta D ereduko haurrentzat aproposa

Eguna: **apirilak 6**, asteazkena.

Ordua: 17:30ean

Lekua: Arangurengo Kultur Etxeko Auditorioan

Sarrera: doan



EUSKARAREN ASTEA

PAILAZOEN IKUSKIZUNA EUSKARAZ:

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

Lana: Ongi etorri PUPU eta LORE

Eguna: **Maiatzak 4**, asteazkena

Ordua: 18:00

Lekua: Mutiloako kiroldegia

Sarrera: 3€

Ikusle guztientzako jarduera



ANTZERKIA EUSKARAZ

Lana: "Xabinaitorl"

Taldea: Gorringo

Antzezleak: Anjel Alkain, Mikel Pagadi, Asier Sota, Egoitz Lasa, Mikel Laskurain, Ainere Toloza, Isabel Aguirresarobe **WAZEMANK-eko lan-taldearen eskutik.**


Eguna: **maiatzak 6**, ostirala

Ordua: 20:00

Lekua: Mutiloako Kultur Etxeko Auditorioa

Sarrera: 6 euro

Gaszte eta helduentzako jarduera.



EUSKARAREN EGUNA ARANGURENEN

Maiatzak 8: egun osoan zehar ekitaldiak: haurrentzako jokoak, janaria, dantza...

HURRENGO JARDUERAK

EGA PRESTATZEKO IKASTAROA

Abuztutik aurrera interesaturik bazaudete euskara zerbitzura deitu beharko duzue izena emateko.

GURASOENTZAKO EUSKARA IKASTAROK

Abuztutik aurrera interesaturik bazaudete euskara zerbitzura deitu beharko duzue izena emateko.

IZARREN DISTIRAJI

Talentu show bat da.

12-18 urte bitarteko nerabeei zuzenduta

Izango dituzu gure berriak

EUSKALDUNEN FITXATEGIA

Aranguren Ibarrean erroldatuta egonik, euskara gaitasunen bat eta 2 urte baino gehiago duenak, eta bere datuak Euskaldunen Fitxategian egoteko interesa duenak, Euskara Zerbitzuan aurkituko duen galdetegia bete dezake.

ARGITALPENAK

Nafarroako Unibertsitate Publikoak eta Arangurengo Udalak argitaratutako «Estudio Sociolingüístico del Valle de Aranguren» argitalpenaren ale bat nahi baduzu, jar zaitez Euskara Zerbitzuarekin harremanetan. Erroldatuentzako doako aleak daude.



Udalaren helburua Ibarreko taldeekin elkarlanean aritzea da. Horregatik, Udaletik gizarte eragile eta norbanako guztiei hizkuntzaren normalizazio prozesu honetan parte hartu eta inplikatzeko gonbidapena luzatu nahi dizuegu.

EUSKARA ZERBITZUA
Eskeletako k/9, Mutiloa
Asteleheneetik ostiralera
9:00etatik 14:00etara
948 15 01 93

euskera@aranguren.es
www.aranguren.es